


# GR 121

## Talaia ibilbidea

**1. etapa > Hondarribia - Pasaia**

21,8 Km / 7 h 30 min

**DSS2016 GRSAREA** Gipuzkoako Natur Gune Babestu guztiak batzen dituzten 7 GRz osatua dago

Ireki diren bide berriei esker, bizimodu osasuntsua eta ingurunearekiko errespetua sustatuko dituen ondare kulturala aberasten da. Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu du egitasmo hau DSS2016 Europako Kultur Hiriburuarekin elkarlanean.

**La RedGR DSS2016** consta de 7 GRs que aúnan todos los Espacios Naturales Protegidos de Gipuzkoa.

Gracias a los nuevos tramos abiertos, se enriquece un legado cultural que promueve un modo de vida saludable y el respeto al medioambiente. Este proyecto ha sido promovido por la Diputación Foral de Gipuzkoa en colaboración con DSS2016 Capital Europea de la Cultura.

DSS2016.EU

GR SAREA

# GR 121

Hondarribitik Mutrikuko Saturraran hondartzaraino doan mendi Ibilbide Luze (GR) hau garai bateko baleazaleek, zelatatzeko, erabiltzen zituzten talaietatik zehar doa eta, hortik zidorraren izena. Itsasoari begira egiten den bide honetan Jaizkibel-Ulia KBEa, Iñurritza Biotopoa, Garate-Santa Barbara KBEa eta Euskal Kostaldeko Geoparkea gurutzatzen dira; baita ere, hainbat hondartza, kala, gotorleku, herri eta auzo. Horregatik, aukera paregabea eskaintzen du Gipuzkoako natura eta kultura ezagutzeko.

Este sendero de Gran Recorrido (GR) que discurre entre Hondarribia y la playa de Saturraran en Mutriku atraviesa las antiguas atalayas de vigilancia de los balleneros, de ahí el nombre del recorrido. En este sendero que se realiza mirando al mar se cruzan el ZEC Jaizkibel-Ulia, el Bitopo Iñurritza, el ZEC Garate-Santa Barbara y el Geoparque de la Costa Vasca; también, varias playas, calas, fuertes, pueblos y barrios. En definitiva, ofrece una inmejorable oportunidad de conocer la naturaleza y cultura de Gipuzkoa.




## Profila
Perfil




Luzera | Longitud
21,8 km

Desnibela | Desnivel
+954 m / -983 m

## Interes puntuak | Puntos de interés

a



ARTZUKO PORTUA: Egungo atsedenleku lasaia bilakatu bitarte, Artzuko portuak eta haren inguruek historiako hainbat pasadizo esanguratsu ezagutu dituzte. Hala Ameriketatik ekarritako artoaren hedapena nola mendiak eskaintzen zituen harrien ustiapenaren arrastoak ia-ia ikusgai dira oraindik.
Hondarribiako alde zaharra, harresia, Casadevante jauregia eta herriko beste zenbait eraikin, Jaizkibel mendiko harrobietako harriak erabilita altxatu ziren.

PUERTO DE ARTZU: Antes de convertirse en la tranquila zona de recreo que hoy conocemos, tanto el puerto de Artzu como su entorno han sido testigos de varios acontecimientos que han ido marcando la historia. La expansión del maíz importado desde América o la explotación de las rocas que el monte ofrecía, son casi perceptibles a día de hoy.
La parte vieja, la muralla, el palacio Casadevante y otras tantas construcciones de Hondarribia fueron construidas empleando piedras de las canteras de Jaizkibel.

b



BIOZNAR LURMUTURRA: Kokagunearen egokitasunak lagunduta, itsasoari begirik kendu gabe, zelatan, urdintasun zabalean barrena edozein seinale topatzeko prest. Bat-batean, balearen arnasteko beharrak eragindako sartu-irten nabarmenak eta bortizki kanporaturiko ur-turrustak: haiek ziren talaiarien jomuga eta baleen salatari.
Ote eta beste sastraka batzuk erabilita pizturiko suaren keak berriemaile onenaren pareko eraginkortasuna zuen. Mezua berriz, zehatza: balea agertu da!

PUNTA BIOZNAR: Con la ayuda de una adecuada ubicación, sin quitar la vista del mar, vigilante, dispuesto a encontrar cualquier señal en el azul del mar. De pronto, se aprecian a lo lejos zambullidas y chorros de agua expulsados con violencia y generados por la necesidad de respirar de la ballena: eran el objetivo del vigía y los que delataban a las ballenas.
El humo del fuego encendido con tojo y otras malezas era tan efectivo como el mejor de los mensajeros. El mensaje, a su vez, concreto: ¡ha aparecido una ballena!

c



XANGAXI DORREA: Jaizkibelgo gandorrean eta haren inguruan, XIX. mendean zehar piztutako gerrateek utzitako aztarnen azken arrastoak topatu daitezke. Hala, Xangaxi dorrea eta harekin batera eraikitako bere lau anaiak, Irungo Udalak Gobernuari egindako eskaeraren ondorio dira. Hauei esker, Irun eta Donostiaren arteko korridorea zaindarien kontrolpean egoteaz gain, iparretik etor zitekeen eraso karlistaren arrisku-maila asko murriztu zen.

TORRE DE XANGAXI: En la cima del monte Jaizkibel y sus alrededores se pueden encontrar los últimos vestigios de las guerras habidas durante el siglo XIX. Así, el torreón de Xangaxi y la otras cuatro torres construidas junto a ella, fueron levantadas por el Gobierno a petición del Ayuntamiento de Irun. Desde ellas, además de tener bajo el control de los vigías el corredor entre Irun y San Sebastián, podía descender considerablemente el nivel de peligro de los posibles ataques carlistas desde el norte.

## MIDE

| Ingurunea<br>Medio | Ibilbidea<br>Itinerario | Desplazamendua<br>Desplazamiento | Ahalegina<br>Esfuerzo | MIDE ordutegia<br>Horario MIDE |
| --- | --- | --- | --- | --- |
| 2 | 2 | 2 | 4 | 7 h 30 min |
| **Arrisku-faktore bat baino gehiago dago**<br>Hay más de un factor de riesgo | **Jarraipena adierazten duten bideak edo seinaleztapena**<br>Sendas o señalización que indica la continuidad | **Mandabideak**<br>Marcha por caminos de herradura | **De 6 a 10 horas de marcha efectiva**<br>De 6 a 10 horas de marcha efectiva | (( 112 ))<br>SOS DEIAK |

## + INFO

+ info MIDE
www.mide.org

## Bide-markak
Señalización

| Ibilbidearen jarraipena<br>Continuidad de sendero | Norabide aldaketa<br>Cambio de dirección | Norabide okerra<br>Dirección errónea |
| --- | --- | --- |

## + INFO



www.gipuzkoamendizmendi.eus

www.gipuzkoaoinez.eus

## Jarraitzeko arauak | Recomendaciones a tener en cuenta

**Txakurrak beti lotuta eraman.**
Los perros deberán ir atados.

**Saiatu mendira bakarrik ez joaten.**
Intenta no ir nunca solo al monte.

**Abeltzaintza estentsiboko eremu batean zaude. Bidean aurkitzen dituzun langak, txabolen ateak eta abar ez utzi zabalik.**
Te encuentras en una zona de uso ganadero extensivo. Cierra las barreras, puertas de cabaña, etc. que te encuentres por el campo.

**Ez ezazu zaborrik lurperatu edo bota.**
No abandones ni entierres la basura.

**Ez egin surik eta ez bota piztutako zigarrorik.**
No hagas fuego ni abandones cigarrillos encendidos.

** Gipuzkoako Mendien urriaren 20ko 7/2006 FORU ARAUA.*

## Legenda
Leyenda

| | | |
| --- | --- | --- |
| **Ibilbide hasiera**<br>Inicio de sendero | **Gotorlekua**<br>Fortificación | **Jatetxea**<br>Restaurante |
| **Atsedenlekua**<br>Area recreativa | **Aparkalekua**<br>Parking | **Monolitoa**<br>Monolitos |
| **Beatokia**<br>Mirador | **Kanpina**<br>Camping | |


arazi

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

Pasaiako Udala

Gipuzkoako Mendizale Federazioa